# Iraultza artikoan kalaallisut hizkuntza biziberritzen

Eider Palmou Orue-Etxebarria
Txerra Rodriguez Gomez
Gasteizen, 2021eko apirilaren 21ean




Munduko uharterik handiena: 2.166.086 kilometro koadro, 44.087 kosta eta %81 izotza. Munduko parke naturalik handiena.

56.000 pertsona bizi dira bertan (hiriburuan, Nuuk-en, 14.000). Hiri eta herri guztiak daude kostaldean. Ez dago errepiderik, ez trenbiderik, ez zuhaitzik.

Inuitak bizi dira bertan.




Inuitak Groenlandiaz gain, Alaskan, Kanadan eta Errusian ere bizi dira. Eta haien egoera (ekonomikoa eta kulturala) okerragoa da.

Eskimalak ez, inuitak.

Groenlandiak esan gura du herrialde berdea. Lehen izen komertziala izan zen, Erik Gorriak asmatutakoa, bikingoak erakartzeko.

Lehen mundua da: internet, mugikorrak, osasun sistema ezin hobea eta doakoa, …

Bizitza oso garestia da han. Horregatik, familia guztietan bada ehiztaririk edo arrantzalerik.




Naturari egokitutako herria, natura moldatu ez duen herria.

## Bitxikeria batzuk

Bandera erreferendum bidez aukeratu zuten.

Jai egun nazionala ekainaren 21a, udako solstizioa.

Herri guztietan eskola, osasun etxea eta zentro soziala. Eta asanbleak.

Inuitek asmatu al zuten futbola? John Davisek dio 1586an inuitek antzeko jolas batean aritzen zirela.

Inuiten berba batzuk egunero erabiltzen ditugu, anorak edo kayak esaterako.





## Bitxikeria batzuk

Inuitek asmatu zituzten nabigazio teknika batzuk asko erabiltzen direnak eta eguzkitako betaurrekoak.



Daniarrak heldu arte, inuitek euren gatazka guztiak (hilketa izan ezik) kantu inprobisatuen bidez konpontzen zituzten. Iazko mendeko 60ko hamarkadan daniarrek debekatu zituzten eta gaur egun galdu dira.

Eta 2021etik aurrera?

Menpekotasun ekonomikoa, klima aldaketa, kutsadura, ...

Baina estraktibismoa eta independentzia grina.

## Hizkuntzaren ezaugarri batzuk

Hiru dialekto nagusi:

- Iparraldekoa (inuktun)
- Ekialdekoa (tunumiisut)
- Mendebaldekoa (kalaallisut): estandarra honetan oinarrituta dago.



Inuiten izenek ez dute generorik.
Hizkuntzak ere ez du generorik.

Hizkuntza polisintetikoa da.

Ergatiboa du.

## Estandarizazioa

Lehen ahalegina: 1850ean, Samuel Kleinschmidt, mendebaldeko kostaldeko dialektoan oinarritua.

1973an: berrikusketa sakona egin zitzaien arau horiei.

Inuitek hiru alfabeto erabiltzen dituzte:

- Latinoa, Groenlandian.
- Zirilikoa, Errusian eta Alaskan.
- Silabikoa, Kanadan.



## Komunikabideak

1861: lehen egunkaria groenlandieraz. Atuagagdliutit.

1958: bigarren egunkaria. Sermitsiak.

1926: lehen irrati emankizunak.

1982: lehen irrati-telebista publikoa. KNR Radio eta KNR TV.

2007: TDTra pasa zen telebista eta groenlandiera hutsez emititzen hasi.

Badira tokiko irrati eta aldizkariak, gaikako aldizkariak (kirola, ehiza, moda, turismoa, ...)


Akissarsitinneqartoq angerlarsimaffimmini:
Filmit mamakujuttullu ataatsimoortitsisarput
Prisvinder på privatfronten:
Film og snolder samler familien
AG Atuagagdliutit
GRØNLANDSPOSTEN
INUIT: › 32-35
Najoqqutassiaq pissarsiariuk
Få opskriften
Aleqa juullisunnitsunik nerisassiortoq:
Appap qatii qalunermut siatat
Aleqa i julekøkkenet:
Friturestegt alkebryst
AG Juullimi pilluaqqusieqq
AG-p Juullisiutai atuakkit
Læs AG's store Juletema
Pineqaatissinneqareersut:
Ullut 420-t angullugit utaqqisartut
Lang venteliste til afsoning:
Dømte kan vente 420 dage
›11
Nunatsinnut erniartorneq akisooq:
Erninerit atuisunit akilerneqartartut
Dyrt at føde i Grønland:
Brugerbetalte fødsler

## Eskola




50eko hamarkadatik aurrera, daniera indarrez sartu zen hezkuntzan.

1979: inuitera hasi zen sartzen eskolan (behetik gora). Eta Groenlandiako curriculuma eratzen hasi ziren.

2021: 6 urtetik 18 urtera derrigorrezkoa eskolatzea, groenlandieraz. Lehen hezkuntzan daniera ere sartzen da eta bigarren hezkuntzan ingelesa.

Materialgintzan, pedagogian eta irakasleengan inbertsio handiak egin dituzte inuitek.

## Ofizialtasuna

1979: autonomia estatutuarekin daniera eta groenlandiera ofizial.

2009: groenlandiera hizkuntza ofizial bakarra.

2020: administrazioan gehien erabiltzen den hizkuntza, justizian izan ezik. Tokiko erakundeetan eta lan munduan daniera desagertzen ari da.

Oqaasiliortut: hizkuntza aferaz arduratzen den gobernuko organoa. Toponimia batzordea, hizkuntza politika, izenak normalizatzeko zerbitzua.



Oqaasiliortut
The Language Council of Greenland

## Ezagutza

58.000 hiztun, 53.000 Groenlandian eta 5.000 diasporan.

Groenlandian bizi diren daniar gehienek ez dute berbarik egiten.

Groenlandiako populazioaren %90k daki bertako hizkuntza eta azken urteotan igotzen ari da ehunekoa (baita erabilera ere).



## Kulturgintza

1914: lehen eleberria groenlandieraz.
1981: emakume batek idatzitako lehen eleberria.

Musika: folkaz gain, rock, hip-hop eta abarrak daude.

Antzerki konpainia nazionala: urtero 3-4 lan (abangoardia eta tradizioa uztartuz).

Pinturan ere erreferenteak: Aron de Kangeq, adibidez.

Film gutxi batzuk egin dira: Inuk eta Smila, adibidez.



## Kalaaleq

Biziberritze etniko eta linguistikoa olioztatzeko legamia.

XIX. mendean piztu eta XX. mendean nagusitu zen, 60ko hamarkadatik aurrera.

Aktibista multzo txiki batek gidatu eta puztu du sentimendu hau.



## Berba batzuk

| QUJANAK | Eskerrik asko |
|---|---|
| AAP | Bai |
| NAAMIK | Ez |
| TAKUSS | Gero arte |
| IMMAQA | Agian |
| ILLILLU | Ondo etorri |
| ALU | Kaixo |
| AJUNNGILAQ | Ez txarra |
| AJORPOQ | Txarra |
| TAKANNA | Lagundu |
| KALAALEQ | Groenlandiarra |
| ASAVAKIT | Maite zaitut |

QUJANAK